

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 12/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik. Hasierako onespina. (Espedientea: 2026/2978)

Laudioko udalbatzaren Osoko Bilkurak 2026ko ekainaren 29an ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion 2026ko udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 12/2026 espedienteari, kreditu gehigarriak emateagatik.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, jendaurrean ikusgai jarriko da hamabost (15) egunez, zilegi duten interesdunek aztertu eta Osoko Bilkuraren aurrean erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Ondore horietarako, ohartarazi egiten da interesdunek udaletxean izango dutela eskuragarri kreditu gehigarriak emateagatik 2026ko aurrekontuko kredituak aldatzeko 12/2026 espedientea, Herriko Plazako bigarren solairuan kokatutako Udal Kudeaketarako Arloan, espedienteari erantsitako dokumentazio guztiarekin batera.

a) Ikusgai egoteko eta erreklamazioak onartzeko epea: hamabost (15) egun, iragarki hau ALHAO-n argitaratuko den egunaren biharamunean zenbatzen hasita.

b) Aurkezteko bulegoak: erregistro orokorra.

c) Zer organoren aurrean erreklamatu den: Udalbatzaren Osoko Bilkura.

Epe horren barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten, behin betiko onetsitzat joko da kreditu gehigarriak emateagatik 2026ko udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 12/2026 espedientea. Erreklamaziorik aurkezten bada, udalbatzaren Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du esanbidezko erabaki bidez horiek ebazteko, eta, ondoren, behin betiko onespina emango zaio erabakiari, hala badagokio.

Laudion, 2026ko uztailaren 1ean

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ